

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Foru Aginduak

EKONOMIA SUSTAPENAREN ETA
FORU ADMINISTRAZIO SAILA

5743

355/2012 FORU AGINDUA, urriaren 16koa. Honen bidez, Isabel Gros Medel andrea Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzuen buru lanpostuari atxikitzea (kodea: 1019.001).

Abuztuaren 1eko 301/2012 Foru Aginduaren bidez, deia egin zen Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzuen buru lanpostua, 1019.001 kodeduna, izendapen aske bidezko sistemaren bidez betetzeko.

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Gizarte Zerbitzuen zuzendariak Isabel Gros Medel andrea proposatu du lanpostu horretan jarduteko.

Diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, uztailaren 30eko Diputatuen Kontseiluaren 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta, maiatzaren 20ko 40/2008 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorri, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa. Isabel Gros Medel andrea Gizarte Zerbitzuen Erregistro eta Ikuskatzailatza Zerbitzuen buru lanpostuari atxikitzea (kodea: 1019.001).001.

Bigarrena.- Foru agindu hau 2012ko abenduaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikularekin loturik– aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 16a.– Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazio Saileko diputatua, LUIS VIANA APRAIZ.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

5718

457/2012 FORU AGINDUA, urriaren 3koa, Lezako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedientea behin betiko onartzen duena.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Lezako Udalak, 2010eko azaroaren 17ko bilkuran, hasierako onarpena eman zion planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketa puntualari buruzko espedienteari; Lezako 5 poligonoko 790 lurzatiaren eraikigarritasunaren gainekoa da aldaketa. Era berean, bilkura hartan aipatutako espedientea jendaurrean jartzea onartu zuen. Azken horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (138 zk., 2010eko abenduaren 2koa), El Correo egunkarian (2010eko abenduaren 5ean) eta udaletxeko iragarki taulan.

Disposiciones Administrativas

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA
Y ADMINISTRACIÓN FORAL

5743

ORDEN FORAL 355/2012, de 16 de octubre, por la que se adscribe a Dña. Isabel Gros Medel al desempeño del puesto de Jefa de Servicio de Registro e Inspección Servicios Sociales, código 1019.001.

Por Orden Foral nº 301/2012, de 1 de agosto, se convocó la provisión por el sistema de libre designación, del puesto de Jefa de Servicio de Registro e Inspección Servicios Sociales, código 1019.001.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Directora de Servicios Sociales ha propuesto para el desempeño del puesto a Dña. Isabel Gros Medel.

De conformidad con lo establecido en el Decreto Foral del Diputado General 162/2011, de 19 de julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral, y con los Decretos Forales 154/1993 del Consejo de Diputados de 30 de julio, por el que se establecen las atribuciones en materia de Función Pública y 40/2008, de 20 de mayo, por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento competente en materia de Función Pública.

DISPONGO

Primero. Adscribir a Dña. Isabel Gros Medel al desempeño del puesto de Jefa de Servicio de Registro e Inspección Servicios Sociales, código 1019.001.

Segundo. La presente Orden Foral tendrá efectos a partir del día 5 de diciembre de 2012.

Tercero. Contra la presente Orden Foral podrá interponerse, a partir del día siguiente al de su publicación, recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz o, potestativamente, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, de acuerdo con lo previsto en el art. 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa, en relación con el art. 116 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de octubre de 2012.– El diputado de Promoción Económica y Administración Foral, LUIS VIANA APRAIZ.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

5718

ORDEN FORAL 457/2012, de 3 de octubre, de aprobación definitiva del expediente de 5ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Leza.

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Leza acordó, en sesión del día 17 de noviembre de 2010, aprobar inicialmente el expediente de la 5ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente a la edificabilidad de la parcela 790, polígono nº 5 de Leza, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 138, de 2 de diciembre de 2010, en el periódico El Correo de 5 de diciembre de 2010 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Bigarrena.- Jendaurreko informazio aldiari, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2012ko urtarrilaren 26ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako eskumen erregimenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeko Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak, maiatzaren 23ko 3/2012 bilkuran, espedientearen aldeko txostena eman zuenez, Arabako Foru Aldundiari dagokio eman beharreko ebazpena ematea, aipatutako 2/2006 Legearen 91.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Laugarrena.- Era berean, espedientearen gaineko txostena egin zuen Arabako Hirigintza Batzordeak 2012ko irailaren 25ean egindako 6/2012 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 14an onartutako 155/1999 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

ONARRIAK

Lehenengoa.- Lezako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa honek, ekimen pribatukoa izanik, Lezako 5 poligonoko 790 lurzatioko eraikitze baldintzak aldatzea du helburu. "SUB. Upategi tradizionalak" ordenantzak arautzen duen zonan dago kokatuta aipatutako lurzatiak, eta horren barruan badaude lerrokaduren adiera bakarreko xedapenaren bidez antolatutako eraikinak, 2 m²/m²s-ko gehieneko eraikigarritasuna ezarrita dutenak, eraikuntza irekiko zenbait zonetan izan ezik. Bada, 790 lurzatiak eraikuntza irekiko zona batean dago, eta espazio libre pribatu gisa kalifikatuta dago zati handi batean.

Bigarrena.- Asmoa da lurzati horretako eraikigarritasuna 0,25 m²/m²s-raino handitzea, oraingo espazio libre pribatua 181,75 m²-ko sabaia izango lukeen etxebizitza berri bat eraiki ahal izateko, lurzatiaren lehenik eraikita dagoenaz gain.

Hirugarrena.- Hirigintza eraikigarritasuna handituko denez, dagokion eremua hiri lurzoru finkatugabearen kategoriarik atxiki behar zaio, eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako gorde beharreko lursailak finkatu behar dira. Aurkeztutako espedientearen lurzatiaren iparraldean kokatzen da eremu hori. Era berean, koefiziente horien artean gaur egun dagoen aldea txikitzeko egindako proposamena justifikatzen da, dagozkion eraikuntza eskubideen diskriminazioa saihestuz, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 25. eta 79.1 artikuluetan ezarritako gutxienezko estandarrek betetzen direla justifikatzen da. Era berean, geroko xehetasuneko azterlan baterako utzi da behin betiko eraikuntza lerrokadurak zehaztu beharra, bai eta udalari egin beharreko lur lagapenen kokapena eta taldekatzea edo horiek dirutan ordaintzeko aukera ere, hori guztia zehaztuko delarik. Halaber, lehendik dauden zuhaitzak lehengoratu behar dira, baldin eta eraikitze obra berriak horietan eragiten badu.

Laugarrena.- Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak adierazi du etxebizitza eraikitzeko gero lehendik dauden zuhaitzak, erkametzak alegia, errespetatu behar direla, ahal den neurrian, gaur egun dauden lekuan, hau da, hariztiko txokoren batean kokatu behar dira.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketa puntualari buruzko espedienteak. Lezako 5 poligonoko 790 lurzatiaren eraikigarritasunaren gainekoa da aldaketa, eta Franco Lamikiz neba-arrebek sustatu eta Lezako Udalak bideratu du.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal da zuzenean, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 3a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 26 de enero de 2012, a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- De conformidad con el régimen competencial que se deriva de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, una vez emitido informe por la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, Sección de Planeamiento Urbanístico de Álava, en su sesión 3/2012 de 23 de mayo, que informó favorablemente el expediente, corresponde a la Diputación Foral de Álava adoptar la resolución que corresponda, a tenor de lo dispuesto en el artículo 91.5 de la citada Ley 2/2006.

Cuarto.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 6/2012, de 25 de septiembre.

FUNDAMENTOS

Primero.- La presente Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Leza, de iniciativa privada, tiene por objeto modificar las condiciones edificatorias de la parcela 790 del polígono 5 de Leza, situada en la zona regida por la Ordenanza "SUB. Bodegas Tradicionales", en la que dentro de su ámbito existen edificaciones ordenadas por la disposición unívoca de sus alineaciones, con una edificabilidad máxima de 2 m²/m²s, excepto en algunas zonas de edificación abierta entre las que se encuentra dicha parcela 790, en su mayor parte calificada como Espacio Libre privado.

Segundo.- Se trata de dotarla de un incremento de la edificabilidad hasta 0,25 m²/m²s para poder edificar en el ahora Espacio Libre Privado una nueva vivienda de 181,75 m² techo además de la ya existente en la parcela.

Tercero.- Por existir, un incremento de la edificabilidad urbanística, el ámbito correspondiente ha de ser adscrito a la categoría de suelo urbano no consolidado y establecer reservas de terrenos para dotaciones públicas de la red de sistemas locales, que el expediente presentado ubica al Norte de la parcela. Asimismo justifica la propuesta en la minoración que se propone de la diferencia actual entre dichos coeficientes, evitándose de esa manera una discriminación de los derechos edificatorios que le corresponden y justifica el cumplimiento de los estándares mínimos que los arts. 25 y 79.1 de la Ley de Suelo y Urbanismo 2/06 determinan, a la vez que traslada a un estudio de detalle posterior, la definición de las alineaciones edificatorias definitivas, y la agrupación y situación de las cesiones de terreno al Ayuntamiento o su posible monetarización, pormenorizando y concretando dichos términos, obligándose a la reconversión del arbolado existente, que resulte afectado por la nueva obra de edificación.

Cuarto.- El Servicio de Medio Ambiente y Biodiversidad, indica que la posible construcción de la vivienda ha de respetar, en lo posible, el arbolado existente constituido por ejemplares de robles carrasqueños o quejigos, en su emplazamiento actual, ubicándose en alguno de los espacios intersticiales del robledal.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de 5ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, referente a la edificabilidad de la parcela 790, polígono 5 de Leza, promovida por los Hermanos Franco Lamikiz y tramitada por el Ayuntamiento de Leza.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 3 de octubre de 2012.- La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

"SUB. Upategi tradizionalak" 154. artikulua IDAZKERA BERRIA

2.1. Etxadi linealen edo bloke bakartuen zona, zeinetan planeamenduak eraikuntzaren kanpo lerrokadura ezarri duen.

BEREKO ERABILERA:	HAUETAN BAIMENDUA:
2.2.3. Ardo egileen upategiak.	BS eta SE

ERABILERA BATERAGARRIAK:	HAUETAN BAIMENDUAK:
2.3. Artisautza eta arte lanbideak.	BS
2.4. Etxeko kontsumorako produktuak konpontzea edo tratatzea.	BS
3.1.1. Nekazaritzako ustategiei lotutako biltegiak.	BS
5.1.1. Bulego profesionalak.	BS eta SE
5.3.1. Hotelak eta apartotelak.	BS eta SE
6.1.1. Familia bakarreko etxebizitza.	BS eta SE
6.1.2. Familia anitzeko etxebizitza.	BS eta SE
6.2. Etxebizitza kolektiboa.	BS eta SE

BS= Behe Solairua; SE= Solairu Eredua

DEBEKATUTAKO ERABILERAK:

Lizentzia behar duten gainontzeko erabilerak.

LURZATIAREN NEURRIA:

- Gehienez: ez da ezarri.
- Gutxienez: 200 m².
- Gutxienezko aurrealdea: 6 m

ERAIKINAREN KOKAPENA:

- Kale lerrokadurak: ikusi planoak.
- Barne lerrokadura: ez da ezarri.
- Atzeraguneak: ez dira ezarri.
- Mugetarainoko tartekak: ez dira ezarri.

ERAIKIGARRITASUN GARBIA:

2 m²/m²s. Planoetan adierazitako zonetan izan ezik.

GEHIENEN ARAUZKO ALTUERA:

BS + 1 = 7,50 m.

SESTRATIK GORAKO GEHIENEN SOLAIRU KOPURUA:

Ikusi planoak

SESTRATIK GORA GUTXIENEN SOLAIRU KOPURUA:

Planoan ezarritakoak baino bat gutxiago.

BALDINTZA BEREZIAK:

Oin berriko edozein eraikinetan, etxebizitza bakoitzeko apartamentu plaza estali bat egongo da.

Apartamentu plaza gure gutxienezko neurriak hauek dira: 2,20 m x 5,00 m.

Eraikina lerrokadura ofizialekin atzeraematen bada, lur partikularra eta bide publikoak hesiez, zoruaz edo beste elementu batez bereiztu behar dira.

BALDINTZA ESTETIKOAK:

Fatxadako akaberak harrizkoak edo mortairu emokadurazkoak izango dira, kolore okreetan edo lur koloreetan, tonu argietan. Bistako adreilua baimenduko da, horma atal txikietan jartzen bada eta fatxadako gainerako materialen antzeko koloreetakoak bada. Zuriketa debekatuta dago. Aluminiozko zurajeak, aluminio kolorez, debekatuta daude. Baoak bertikalak izango dira eta ez dute hartuko fatxadaren luzeraren ehuneko 50 baino gehiago.

Estalkiak isuridunak izango dira, ehuneko 30 eta ehuneko 58 arteko isuriarekin. Teilatu hegala egongo dira. Estalkien akabera zeramizko teila konkortuzkoa edo antzekoa izan behar da, kolore arre edo gorrixkan.

Teila beltza debekatuta dago.

2.2. 790 LURZATIKO ERAIKUNTZA BALDINTZAK

1 zonako eraikigarritasuna: 2 m²C/m²

2 zonako eraikigarritasuna: 0,25 m²C/m²

Baldintza bereziak:

- Lurzatiaren urbanizazioa ordaintzeko betebeharra, eta agirian adierazitako aprobetxamendu lagapenak eta zuzkidurak egiteko egin-beharrak betearaztea.

NUEVA REDACCIÓN DEL ART. 154. SUB. Bodegas tradicionales

2.1. Zona de manzanas lineales o bloques aislados y en la que el planeamiento opta por marcar una alineación exterior de la edificación.

USO CARACTERÍSTICO:	SE PERMITE EN:
2.2.3. Bodegas de cosechero.	P.B. y P.T.

USOS COMPATIBLES:	SE PERMITEN EN:
2.3. Artesanía y oficios artísticos.	P.B.
2.4. Reparación y tratamiento de productos de consumo doméstico.	P.B.
3.1.1. Almacenes vinculados a explotaciones agrarias	P.B.
5.1.1. Despachos profesionales.	P.B. y P.T.
5.3.1. Hoteles y apartoteles.	P.B. y P.T.
6.1.1. Vivienda unifamiliar.	P.B. y P.T.
6.1.2. Vivienda plurifamiliar.	P.B. y P.T.
6.2. Vivienda colectiva.	P.B. y P.T.

P.B. = Planta baja; P.T. = Planta tipo

USOS PROHIBIDOS:

El resto de los usos sometidos a licencia.

TAMAÑO DE PARCELA:

- Máximo: No se fija.
- Mínimo: 200 m².
- Frente mínimo: 6 m.

SITUACIÓN DE LA EDIFICACIÓN:

- Alineaciones de calle: Ver plano
- Alineación interior: No se fija.
- Retranqueos: No se fijan.
- Separación de linderos: No se fijan.

INTENSIDAD NETA DE EDIFICACIÓN:

2 m²/m²s. Salvo zonas marcadas en planos.

ALTURA REGULADORA MÁXIMA:

P.B. + 1 = 7,50 m.

Nº MÁXIMO DE PLANTAS SOBRE RASANTE:

Ver plano

Nº MÍNIMO DE PLANTAS SOBRE RASANTE:

Una menos de las fijadas en el plano.

CONDICIONES PARTICULARES:

Cualquier edificación de nueva planta contará con una plaza de aparcamiento cubierta por cada vivienda.

La dimensión mínima de plaza de garaje se establece en 2,20 x 5,00 m.

Si la edificación se retranquea de la alineación oficial debe diferenciarse mediante el vallado, el pavimento u otro elemento el terreno particular del viario público.

CONDICIONES ESTÉTICAS:

Los acabados de fachada serán de piedra o revoco de mortero en color ocres o tierras en tonos claros. Se permite el ladrillo caravista en pequeños paños y con colores afines al resto de materiales de fachada. Se prohíben los blanqueos. Se prohíben las carpinterías de aluminio en su color. Los huecos serán de forma vertical y no excederán del 50 por ciento de la longitud de la fachada.

Las cubiertas serán inclinadas y con aleros, con inclinaciones inferiores al 58 por ciento y superiores al 30 por ciento, con acabado en teja curva cerámica o similar de color pardo o rojizo.

Se prohíbe la teja negra.

2.2. CONDICIONES DE EDIFICACIÓN DE LA PARCELA 790

Edificabilidad Zona 1: 2 m²C/m²

Edificabilidad Zona 2: 0,25 m²C/m²

Condiciones particulares:

- Obligación de costear la urbanización de la parcela, y dar cumplimiento a las obligaciones y deberes de cesión de aprovechamiento y dotaciones que se han cuantificado en el documento.

- Garapenerako aurreikusitako sistema: xehetasuneko azterlana, zeinetan jasota egongo diren lurzatiak amaieran izango duen itxura, lagatako zuzkiduren kokalekua, eta aprobetxamenduen lagapenaren eta zuzkidura kargen ordezeko kalteordainaren diru kuantifikazioa.

Agiri honen M02 planoan adierazitako lagapenen kokapena adierazgarria besterik ez da. Hortaz, xehetasuneko azterlanak alderdi horiek zehaztu beharko ditu.

- Lehendik dauden zuhaitzak mantendu edo tokiz aldatu beharra dago.

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

5722

235/2012 FORU AGINDUA, urriaren 9koa, Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako laguntzen deialdia onartzen duena 2012ko ekitaldirako.

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, eskulangintza sektoreko jarduerak dituen alderdi desberdinen garapena sustatzeko asmoa du, sektore horretako ekoizpen jarduera bultzatzen duen babes programa orokor bat finkatuz, eta horretarako komenigarria deritzo Arabako eskulangintza sektoreko jarduerarako laguntzen deialdia egiteari.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Arabako eskulangintza sektorearen jarduerarako laguntzetarako 2012ko ekitaldian indarrean egongo den deialdi publikoa onartzea, 32.000 euroekin hornituta.

Bigarrena.- Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea, zeinak espedienteari erantsita dauden.

Hirugarrena.- Gastu hau estaltzen duen partida Arabako Foru Aldundiaren 2012ko ekitaldirako Gastu Aurrekontuko 70.1.05.72.05.-460.00.02.0 zenbakikoa da (xedapen erreferentzia: A 105.3840).

Laugarrena.- Prozedura izapidetzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Azpiegitura Atala izango da.

Bosgarrena.- Ebazpenak bi hilabeteko epean hartuko dira, diru-laguntza eskaerak aurkezteko epearen amaiera egunetik kontatzen hasita. Epe horretan berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezetsi egin dela esan nahiko du.

Seigarrena.- Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio. Haren aurka, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatuta), aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo, bestela, aurka egin ahal izango zaio zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, bi hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zazpigarrena.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan aurreikusten diren moduei jarraiki jakinaraziko zaie eskatzaileei laguntza eman ala ukatzeari buruzko ebazpena.

Zortzigarrena.- Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 9a.- Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

ARABAKO ESKULANGINTZA SEKTOREA DIRUZ LAGUNTZEKO DEIALDI

2012RAKO OINARRIAK

Lehena.- Deialdiaren xedea

Arabako eskulangintza sektorearen jarduerak dituen zenbait alderdi sustatzea eta garatzea. Horretarako, laguntza programa orokor bat ezarriko da, sektorearen jardura produktiboa bultzatzeko.

- Sistema previsto para el desarrollo: Estudio de Detalle en el que se dispondrá el estado final de la parcela, la ubicación de las dotaciones cedidas y la cuantificación de la monetarización de la cesión de los aprovechamientos y de la indemnización sustitutoria del levantamiento de las cargas dotacionales.

La ubicación de las cesiones representadas en el plano M02 de este documento tiene carácter indicativo siendo el Estudio de Detalle el que pormenorice y concrete dichos términos.

- Se obliga a la conservación o trasplante del arbolado existente.

DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

5722

ORDEN FORAL 235/2012, de 9 de octubre que aprueba la convocatoria de ayudas a la actividad del sector artesano alavés ejercicio 2012.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, en el propósito de estimular el desarrollo de las distintas facetas que presenta la actividad del sector artesano, a través del establecimiento de un programa genérico de apoyo que impulse la actividad productiva del mismo, estima conveniente convocar ayudas a la actividad del sector artesano alavés.

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar la Convocatoria pública de ayudas a la actividad del sector artesano alavés, que regirá en el ejercicio 2012, con una dotación de 32.000 euros.

Segundo.- Aprobar las Bases que regirán la presente Convocatoria, que quedan unidas al expediente.

Tercero.- La partida que ampara este gasto es la 70.1.05.72.05.-460.00.02.0 del Presupuesto de Gastos de la Diputación Foral de Álava para el ejercicio 2012, referencia de contraído A 105.3840.

Cuarto.- Será órgano competente para la instrucción del procedimiento, la Sección de Infraestructura Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava.

Quinto.- Las resoluciones se dictarán en el plazo de dos meses contados a partir de la fecha de finalización del plazo para presentar las solicitudes de subvención. Si en este plazo no hubiese recaído resolución expresa, se entenderá desestimada la petición.

Sexto.- La presente resolución agota la vía administrativa pudiendo interponer, de conformidad con los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la notificación de este acto, ante la Diputada Foral titular del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte o ser impugnado directamente ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Vitoria-Gasteiz, conforme a lo previsto en el artículo 8 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de dos meses desde su notificación.

Séptimo.- La resolución de concesión o denegación de la ayuda será notificada a los/as solicitantes según las formas previstas en el artículo 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Octavo.- Publicar la presente convocatoria en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 9 de octubre de 2012.- Diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

CONVOCATORIA DE AYUDAS A LA ACTIVIDAD DEL SECTOR ARTESANO ALAVÉS

BASES 2012

Primera.- Objeto de la convocatoria

Estimular el desarrollo de las distintas facetas que presenta la actividad del sector artesano alavés, a través del establecimiento de un programa genérico de apoyo que impulse la actividad productiva del mismo.